# Bidari, Ermuko Gutxitu Fisikoen Elkartea

- ***Zein urtetan sortu zen taldea?***
1994an.
- ***Zenbat kide zarete?***
69 gutxi gora behera.
- ***Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?***
Hilean behin elkartzen gara zuzendaritza batzordeko kideak eta erabakiak hartu behar direnean, gainontzeko kideak ere deitzen ditugu. Gure lokala Aldapan dago, 2. portalean, eta guretzat, haraino igotzea oso zaila da, horregatik kide asko ez dira bileretara etortzen. Han 7 edo 8 urte daramatzagu eta beste leku aproposagoa eskatu diogu Udalari, baina ez dugu erantzunik izan.
- ***Zeintzuk dira zuen helburuak?***
Gure helburua gutxitu fisikoen artean lana sustatzea eta terapia okupazionala prestatzea da, informatikako ikastaroak, esaterako. Lana sustatzeko FEKOORen laguntza dugu (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea) eta honek lan izugarria egiten du gure alde.
- ***Urtean zeintzuk ekitaldi antolatzen dituzue?***
Aurten ez dugu ekitaldirik prestatu, gure lokalaren kokapena batere egokia ez delako eta horrek interesik eza eragiten duelako bazkideen artean. Iaz, maiatzaren 5an Berditasunerako eguna ospatu genuen eta gutxitu fisikoen saskibaloi partidua ere izan genuen. Aurten, abenduan, jardunaldi batzuk antolatu nahi genituzke.
- ***Txangoak egiten dituzue?***
Aurten ez baina aurreko urteetan, Errioxara eta Cabarcenora ere joan izan gara eta aurrera begira, ekimen horiek berriro martxan ipintzea gustatuko litzaiguke. Gainera FEKOORrek 18 jarleku dituen autobus egokitua eskaintzen du horrelako bidaietarako.
- ***Zuekin harremanetan jartzeko?***
Iñaki Ramosi deitu: 695726744.

Dorleta Vidal


**Iñaki Ramos, eskuman, elkarteko presidentea Eusko Legebiltzarreko presidentearekin**













